

## FAMILIAREN JATORRIA

---

Zenon Uriguen  
pasiotarra



### FAMILIAREN SORRERA

Jaungoikoak esan eban “Egin dagigun gizakia, izan bedi gure antzeko.” Jaungoikoak, beraz, bere antzeko egin eban gizakia. Jainko beraren irudira egin eban gizakia, arra eta emea egin zituan. Eta bedeinkatu egin zituen esanez “Euki egizuez umeak ugari, bete lurra eta izan aren nagusi.” Ukatu eziña da: Jaungoikoa, gizartea eta familia. Jaungoikoa da gizartearen eta FAMILIAREN JATORRIA

### EGI GARBIAREN ERAGIÑA

Ez galdu gure garai larrietan familiaren jatorria eta sustrai sakonak. Zer dala ta ukatu familiaren sorrera, Izaera ta biziera, millaka urteetan mundo-zabalera osoan bizi izan dana. Bai. Familia dozu bizibide ta erakunde goragarria gizarte eta elizaren aurretik, askoz be aurretik, eta erakunderik baketsuena. Familiaren ondasunik goragarria beti izan dira aita, ama ta seme alabak. Gurasoei eten barik esan bear jake “Jantzi zaiteze biotzeko errukiz, ontasunez, apaltasunez, eroapenez, alkar ondo eroanik eta parkaturik.” Modu eta izaera onetan millaka urteetan euskal familiak ondo irabazita dauko esaera au. “Eusladun fededun”. Zorionez gure familiaren bitartez artu dogu ondare ederrena. Eta gaurko egunetan bizi da bizi ondare goragarri ori. Mesedez ez esan ezetzik, Ez apurtu eta zatitu biziera ori. Egi garratza da, gogorkeriak ez dakar iñoiz bakerik, eta maitasunak biotz guztiak lotzen ditu. Zorionez gaur egunetan ere askok, bai askok onartu ta bizi dabe biziera zoragarria.

## EZIKETA

Familia ona, beti ongarria. Gizonak gauza ederrik asko egin arren, bear bada garrantzitsuena, bearrezkoena egin barik izten dau, au da, gizongintza, gizonaren eziketa eta moldaketa. Gizona zelakoa, gizartea be alakoa. Familia bera da gizartearen txokorik maitagarriena. Baña guraso ardura bakoak, seme alaba burubakoak, fedebako pertsonak, erakunderik onenak ankaiz gora jartzen ditue. Gizartearen okerbidea ez dago erakundetari, pertsonetari baño, Emendik dator eziketa onaren premiña. Gizakiaren ondasunik gorena nortasun aberatsa, izaera ona ta onbera, buru eta elburu argia, persona ona ta eraginkorra bizi ta gozatzea da. Nortasunaren jabe izateko gure gaztediak gogoz auznartu bear dau. Gazte, neska edo mutil, ez uste aitak edo amak gizaki aundi, jakintsu ta ona egingo zaitula. Zeuk egin eta eragingo dozu, zeure borontate onagaz eta Jainkoaren graziaz gizonik onena ta jakintsuena. Zeu zara zure buruaren, eta elburuaren jaun eta jabe. Familia onaren bizipena jakintza eta lege guztien ganetik dago eta benetako maitasunaren iraupena ekinaren ekinenez burutu bear da. Aipagarria da Barandiaran jaunaren esaera "Euskal leen gaia gizakia da", gai guztien ganetik. Eta zergaitik ez? Euskal familiaren leen gaia izan bedi: batasuna, bakea ta zoriona. Euskal familia beti izan da millaka urteetan ontasunez jantzia eta zorionez josia. Gaur egunetan kontuz: Zalditik astora, eta astotik lurrera?

